

MARTIN ALDAYA OLASAGASATI, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko administrazio kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

A) Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2019ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Gaikako hondakinen bilketa egiteko ontzien hornidura kontratatzeke esleipena Urban Solution, ID-Waste eta Plastic Omnium enpresen alde erabakitzea.

Zehazki, besteen artean, honako akordioak erdietsi ziren aho batez:

Lehenengoa.- Gaikako hondakinen bilketa egiteko ontzien horniketaren kontratua ondorengo enpresei esleitzea adierazten den salneurrian (BEZ kanpo).

Lote zb	Enpresa	Puntuaketa orokorra	Eskainitako lotearen prezioa lau urterako
1	Urban Solution	85	26.124,00EUR
2	Urban Solution	80	3.656,00EUR
3	ID-Waste	74	1.800,00EUR
4	Plastic Omnium	75,65	33.486,00EUR
5	Plastic Omnium	70,80	15.900,00EUR

Hirugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerenteari ahalmena ematea, eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratua gauzatu dezaten.

Horiek horrela, eta administrazio kontseiluak horrela erabakita kontratua esleitutzat eman zen eta aipatu enpresekin ondoren aipatzen diren datetan kontratuak sinatu ziren:

Urban Solution: 2019ko otsailaren 8an

Plastic Omnium: 2019ko otsailaren 11n

ID-Waste: 2019ko otsailaren 11n

B) Sinatutako kontratuan atxikitako plegu administratiboetako 4. puntuan honakoa jasotzen dela:

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena BI URTEkoa izango da. Prozedura honetan biltzen den zerbitzu honek hasiera kontratua sinatu eta hurrengo egunean izango du.

Kontratua beste BI URTEZ luzatu ahal izango da, Garbitania Zero Zabor S.M.k horrela eskatuz gero eta gehienez urte beteko bi alditan (aldi bakoitzean Administrazio Kontseiluak horrela onartuz gero), eta esleitua zerbitzua luzatzera behartuta legoke, SPKLren 29.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki. Kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, gehienez ere LAU (4) urtekoa izango da.

Garbitania Zero Zabor S.M. berak erabakitzen badu, bere ekimenez eta esleipendunak bere obligazioak bete ez dituelako, kontratua suntsiaraztea, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, Garbitania Zero Zabor S.M.k horri egoki irizten badio, horretarako deitutako lizitazio berria esleitu arte, edota, gehienez ere, sei hilabetez, kontratua suntsiaraztea erabaki denetik



kontatzen hasita. Epe horretan, kontratuan ezarritako prezioak aplikatzen jarraituko dira.

C) Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak 2020ko azaroaren 25ean burutu bilkuran honakoak adostu zituela aho batez:

Lehenengoa.- Beste urte betez kontratuaren luzapena onartzea, iraungitze data berriak ondorengoak izango direlarik:

Urban Solution: 2022ko otsailaren 8an

Plastic Omnium: 2022ko otsailaren 11n

ID-Waste: 2022ko otsailaren 11n

Bigarrena.- Dagokionean aipatu hiru enpresei jakinarazpena igortzea.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, jakinarazpen hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.

Hernanin, 2020ko azaroaren 26an

O.I

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA